

# PING PONG PILOTA

**HAURTALDEA :** Talde osoa

**TOKIA :** Toki zabal bat barnean ala kanpoan.

**HELBURUA:** Lagun bat komitatu jokoan parte hartzeko.

**HIZKUNTZA:** ZU / NIK ZU ZAITUT / ZUK NI NAUZU erabil

## AURKEZPENA

Haur guziak ingurutxoan dira. Bat erdian ematen da eta hasten da saltoka : besteak bitartean :

- « Ping pong, ping pong pilota zira, eta salto salto salto, saltoka ari zira. Ukitzen ba nauzu, nik , salto egingen dut. »

Ondotik ba doa lagun baten ukitzerat :

- « Ukitzen zaitut. Orain zu zira pilota »

1- Bigarren haurra erdian saltoka hasten da eta besteak « ping pong, ping pong pilota zira...”.

Edo

2- Biak orduan ingurutxoaren erdian hasten dira saltoka eta erranez:

- « Ping pong pilota naiz... ukitzen ba zaitut, zuk salto egin ezazu”

Ondotik bakotxa ba doa beste haur baten ukitzerat.....erdian 4 haur.

Hola segituz, erdian 8 haur,...16 haur,...32 haur,...talde osoa saltoka eta erranez:

- “ Ping pong pilota naiz...”

## ONDORIOAK:

- Beste joko batean “ukitu zaitut erabil (sagu/gatu)
- Beste aditzekin “zaitut” erabil (ikus, harrapatu...)